BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, JASANGARRITASUN DEPARTAMENTURAKO KOMUNIKAZIO AHOLKULARITZA BAT KONTRATATZEKO, TRANTSIZIO EKOLOGIKOKO ZUZENDARITZA NAGUSIAREN POLITIKAK GARATZEARI BEGIRA

I.- Kontratuaren objektua

Kontratuaren objektua da komunikazioaren arloko aholkularitza ematea Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuari, Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza Nagusiaren politikak garatzeari dagokionez.

II.- Zerbitzuaren edukia:

II.I.- Komunikazio estrategiako lanak, komunikazio plana eta aholkularitza eta laguntza funtzioak.

II.I.a) Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza Nagusiaren politikak garatzeari dagokionez, departamentuaren jardueren komunikazio eta hedapen politika gauzatzeko eta koordinatzeko aholkularitza.

II.I.b) Foru diputatuarentzat eta Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza Nagusiarentzat komunikazio orientazio globala proposatzea.

II.I.c) Departamentuko arduradunei laguntzea eta aholkularitza ematea, kontratuaren objektuarekin zerikusia duen guztian.

II.I.d) Harremanetarako bide egonkor eta trabagabeak sortzea Departamentuko arduradunen eta informazioaren profesionalen, erakundeen, zirkulu profesionalen eta abarren artean.

II.I.e) Departamentuak abian jarri ditzakeen kanpainen inguruko informazioa eta komunikazioa koherentea izan dadin bermatzea, eta informazio horren jarraipena ziurtatzea.

II.I.f) Komunikazio ekintzak segmentatzea, proposamen bakoitzaren xede den publikoaren arabera.

II.I.g) Departamentuaren helburuak lortzeko traba diren komunikazio arloko oztopoak identifikatzea, eta oztopo horiek gainditzeko soluzio egokienak proposatzea.

II.I.h) Laneko bilera eta saioetan parte hartzea.

II.I.i) Kontratuaren xede diren lanak egiteko beharrezkoak diren giza baliabideak eta lan plana proposatzea.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 301.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, kontratatutako lanetik erator daitezkeen jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak Gipuzkoako Foru Aldundiari lagako zaizkio.

III.- Giza baliabideak eta bitarteko teknikoak:

Aipatutako lana behar bezala egiteko, enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartu behar du lanak behar den denboran eta moduan egiteko nahikoak diren giza baliabideak eta bitarteko tekniko eta materialak jar daitezen proiektuan, baldintza hauek kontuan hartuta:

Giza taldeak, gutxienez, honako osaera hau izan beharko du:

- **Zuzendari/koordinatzaile nagusi 1**, Administrazioarekin elkarrizketan jardungo duena. Gutxienez 3 urteko esperientzia izan beharko du komunikazioko aholkularitza-lanak egiten.
- **Zuzendari sortzaile 1**. Gutxienez 3 urteko esperientzia izan beharko du komunikazioko edukiak sortzeko lanak egiten.

Lanetan parte hartuko duten pertsona guztiek gaituta egon beharko dute lan horiek egiteko, enpresa adjudikaziodunaren antolakuntzapean jardungo dira, eta esperientzia egiaztatua izan beharko dute parte hartuko duten lanetan.

Agiri eta jarduera guztiak elebitasunaren ikuspuntutik egingo dira (euskaraz eta gaztelaniaz).

Hizkuntzaren, irudien eta edukien erabilera ez-sexista eta ez-androzentrikoa bermatzen duten komunikazio politikak aplikatuko dira.

Administrazioak uste badu enpresak jarritako baliabideen artean badirela batzuk ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenak, edozein unetan errefusatu ahal izango ditu horiek, kontratua gauzatu baino lehen edo gauzatu bitartean.

IV.- Azpikontratazioa:

Bai. Ez da zeregin kritikorik aurreikusten.

V.- Lanak ikuskatu eta kontrolatzea.

Enpresa adjudikaziodunak erraztasunak eman beharko dizkio Jasangarritasun Departamentuari lanen garapenari dagozkion ikuskapen eta kontrol eginkizunak bete ditzan, jasotzen dituen oharrak eta gomendioak zorrotz betez.

Kontratuaren jarraipen egokia egiteko, enpresa adjudikaziodunak txosten bat entregatuko du, garatutako lan guztiak, proiektuen bilakaera, eta egoki iritzitako gomendioak jasotzen dituena.

Era berean, adjudikaziodunak kontratua behar bezala garatzeko eta gauzatzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak emango ditu –esate baterako, lan bileretara edo informazioa emateko

bileretara joatea–, eta ez du horregatik ordainketa osagarrirako eskubiderik izango. Betebehar hori bermealdia amaitu arte mantenduko da.

VI.- Konfidentzialtasuna kontratuaren exekuzioan.

Kontratu hau dela-eta egingo diren lan guztiak konfidentzialak izango dira; beraz, enpresa adjudikaziodunak ezingo du erabili, ez berarentzat ez hirugarrenei uzteko, kontratatutako lanen inguruko datu edo informaziorik, ez Administrazioak emandako dokumentaziorik ere.

Zentzu horretan, Administrazio Klausulen Agiriaren azalean xedatutako eta indarrean dagoen datu pertsonalen babeserako arauditik erator litezkeen obligazioak kaltetu gabe, enpresa adjudikaziodunak eskura dituen baliabide guztiak baliatu beharko ditu kontratuaren egikaritzean zehar helarazten zaion informazioaren konfidentzialtasuna babesteko.

Donostia, 2024ko otsailaren 14a

INGURUMENEKO ZERBITZUBURUA

IÑAKI PUGA PUEYO - 15993275H

Firmado digitalmente por IÑAKI PUGA PUEYO - 15993275H
Fecha: 2024.03.14 08:51:27 +01'00'